



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2016ko laugarren hiruhilekoa

aurkibidea: edukiak eta emaitzak

a. euskal kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera	3
b. euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak	7
c. euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak	13
d. eranskina - indizeak	19
e. eranskina - metodologia	23
<hr/>	
<i>fitxa teknikoa</i>	26

a) kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera


- 1. EAEko familien konfiantzak hobetzen jarraitzen du 4**
 - 2. Estatuko eta EB-28ko familien artean portaera berbera 5**
 - 3. ezkortasuna Frantzian eta Erresuma Batuan; neutraltasuna Alemanian..... 6**
-

1. EAEko familien konfiantzak hobetzen jarraitzen du

2016ko laugarren hiruhilekoak erakutsi duenez, EAEko familien konfiantza-indizeak susperraldiko joerari eutsi dio eta -3ko indizearekin, aurreko hiruhilekoko datua (-5) zertxobait hobetu du.

Hala, 2016an, EAEko familien konfiantzaren batez besteko balioa -5ekoa izan da; hau da, 2015ekoa (-6) baino zertxobait hobea, eta 2014ko joera ezkorretik (-19) alden du da.


Azkenik, nabarmendu beharrekoa da azken zortzi hiruhilekoetan EAEko familien konfiantza etengabe hobetu dela.



2. Estatuko eta EB-28ko familien artean portaera berbera

EAEko familien konfiantza apur bat hobetu da (-3, ehuneko +2 puntu), eta Estatuko (-4, ehuneko +2 puntu) eta EB-28ko (-6, ehuneko +1 puntu) familien artean joera bera ikusi dugu. 2016ko laugarren hiruhilekoa urteko lehen zatia baino lasaiagoa izan da. Horri esker, familien konfiantza hobetu egin da, nahiz eta oraindik balio negatibotan dagoen.

Hiru esparruen arteko hiruhilekoko eta portaerako aldeak ikusi ostean, EAEko, Estatuko eta Europako familien konfiantza 2016an antzekoa izan dela ikusi dugu, eta ez du lortu balio positibotan sartzea (-5, -4 eta -7, hurrenez hurren, urteko batez bestekoan).




* EB-28ren eta Espainiaren 2016ko IV hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira; urriko eta azaroko datuen batez bestekoari dagozkio. - 5 -

3. ezkortasuna Frantzian eta Erresuma Batuan; neutraltasuna Alemanian

2016ko laugarren hiruhilekoan, Frantziako familien konfiantza oraindik ere ezkorra izan da (-13, ehuneko +1 puntu) eta hauteskunde-aldi berriarekin lotutako ezegonkortasuna gehitu zaio bertako gizarte mailako haserreari.

Erresuma Batuko etxeetan ezkor jarraitzen dute (-5, ehuneko +1 puntu), EBtik irteteko abian jarritako prozesuak sortutako nahasmenaren adierazgarri. Bi egoera horietan, Alemaniako familien konfiantzak ditu datu onenak (-2) eta ia jarrera neutroan. Aztertutako hiru esparruetan, familien konfiantza oso gutxi hobetu da.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



* Frantziaren, Erresuma Batuen eta Alemaniaren 2016ko IV. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira; urriko eta azaroko datuen batez bestekoari dagozkie.


b) euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak

4. ekonomia orokorraren igurikimenaren suspertze txikia	8
5. enpleguaren arloa hobetzeko igurikimen positiboan oinarrituta	9
6. familien ekonomiaren hobekuntza dakar	10
7. baina ez da guztiz sendotu aurrezteko igurikimenean	11
8. EAEko familien konfiantza, pixkanaka, hobera	12

4. ekonomia orokorraren igurikimenaren suspertze txikia

Aurreko hiruhilekoetan (gobernuaren osaera Estatuan, hauteskunde autonomikoak) baino giro lasaiagoan, eta jarduera ekonomikoa hobetzen ari dela (BPGren igoera % 3 inguruan) dioten emaitzekin batera, euskal familiek ekonomia orokorraren inguruan zer pertzepzio duten erakusten duen adierazlea -5ekoa da, azken lau hiruhilekoetako baxuena.


Denbora-tarte zabalagoari begiratuta, 2016ko batez besteko balioa -7 izan da, 2015ekoa (-5) baino pixka bat baxuagoa. 2015ean joera-aldaketa izan zen euskal familien pertzepzioan eta urrun gelditu zen 2014ko ezkortasuna (-21).



5. enpleguaren arloa hobetzeko igurikimen positiboan oinarrituta

Enpleguaren bilakaeraren inguruko igurikimenak hobetu egin dira eta 9 puntutan daude orain. Etorkizunerako ikuspegia, zalantzarik gabe, positiboa da eta sendotu egin da zazpi hiruhilekotan segidan zerotik gorako balioetan egonda.


Urteko datuei begiratuta, familiek enpleguarekiko duten igurikimenaren indizea, batez beste, 6 puntuko da, 2015eko zifraren (3) halako bi eta 2014ko batez bestekoa (-18) baino askoz hobea.



6. familien ekonomiaren hobekuntza dakar

Familien egoera ekonomikoaren igurikimeneen indizeak aurreko balioaren ia berdina (-3) izan du eta 2014ko hasieratik izandako datu onena izan da; aurreikusitako suspertze-sekuentzia sendotu egin da, baina balio positiboetara iritsi gabe.


2016ko batez besteko balioak familien ekonomiarekiko konfiantza -6 puntutan kokatu du. Balio negatiboa da, zalantzarik gabe, baina 2015ekoa (-7) baino hobea eta 2014ko batez besteko baliotik (-14) urrun dago.



7. baina ez da guztiz sendotu aurrezteko igurikimenean

2016ko laugarren hiruhilekoan, euskal familien aurrezteko gaitasunaren inguruko igurikimenean indizeak ezkortasunean jarraitu du (-12), baina hobetzeko joera hartu du azken zazpi hiruhilekoetan.

Euskal familien aurrezteko gaitasunaren inguruko igurikimenean indizeak izandako batez besteko balioa hobetu egin da pixkanaka: 2014an -23, 2015ean -16 eta 2016an -12. Hala ere, asko baldintzatzen du gainerako osagaien (enplegua, etxeko diru-sarrerak, etab.) suspertzeak.



8. EAEko familien konfiantza, pixkanaka, hobera

Euskal familien 2016ko konfiantza-indizea -5 puntutan dago: azken hiru urteetako baliorik onena da eta aldendu egin da 2014an etorkizunerako zegoen ikuspegi negatibotik. Pixkanakako hobekuntzak enpleguaren bilakaeraren inguruko igurikimen positiboa eta horren igoera du euskarri (+6 puntu 2015etik 2016ra) eta horien isla familien ekonomiaren pertzepzioan (+4 puntu 2015etik 2016ra) ikusten da, balio negatiboetan jarraitzen badu ere. Ekonomia orokorrari buruzko zalantzak erabat argitu ez izanak ere eragiten dio (-3 puntu 2015etik 2016ra).

Euskal familien konfiantzak hobera egin du bigarren urtez, baina ez da nahikoa aurrezteko igurikimena neurri handiagoan mugiarazteko, horrek negatibo izaten jarraitzen baitu (-12), nahiz eta pixkanaka hobetzen ari den (+4 puntu 2015etik 2016ra).

Familien konfiantzaren indizea eta haren osagaiak. EAE



Indizea....	2014	2015	IV H-15	I H-16	II H-16	III H-16	IV H-16
Familien konfiantza	-20	-6	-4	-7	-3	-5	-3
Ekonomia orokorra	-21	-4	-1	-8	-7	-7	-5
Etxeko ekonomia	-15	-9	-6	-9	-5	-4	-3
Langabeziaren bilakaera	-18	3	6	1	9	3	9
Aurrezteko gaitasuna	-23	-16	-15	-14	-11	-10	-12


c) euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak

9. igurikimenaren arabera, inflazio baxua, baina gorakadarekin	14
10. okertu egin da eroskeko uneari buruzko balorazioa	15
11. eta “erosketa handiak” egiteko asmoa ere bai	16
12. jaitsi egin da etxebizitza eroskeko asmoa eta autoa eroskeko asmoak bere horretan jarraitzen du	17
13. profil baxua erosketa handietan eta inbertsioetarako erabakiak	18

9. igurikimenaren arabera, inflazio baxua, baina gorakadarekin

2016ko laugarren hiruhilekoan, prezioen bilakaeraren igurikimenak behera egin du, bost puntutan handitu baita datorren urtean prezioak aurreko urtean baino azkarrago igoko direla uste duten euskal kontsumitzaileen ehunekoa.

Iritzi horren emaitza agregatua (indizea) 15 puntutik 6 puntura igaro da; beraz, eutsi egin zaio inflazio baxua izatearen igurikimenari (balio positiboa), baina jaitsi egin da. Iritzi hori bat dator KPlari buruzko informazioarekin¹, prezioen igoera-erritmoan izandako suspertzeari egiten baitio erreferentzia.



¹ Urriko prezioen igoera (KPI energia kenduta) % 0,8koa izan da EAEn)


² Azken hamabi hilabeteekiko

10. okertu egin da erosteko uneari buruzko balorazioa

¿Nola baloratzen duzu, oro har, etxeko artikuluak erosteko egungo unea (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak,..)?

Erosteke uneari lotutako balorazioak aurreko hiruhilekoetako en oso antzekoak dira. Hala, gehienentzat ez da ez une txarra, ez ona (% 63, ehuneko +1 puntu), une txarra dela uste dutenak ere mantendu egin dira (% 23, ehuneko +1 puntu) eta pixka bat behera egin dute une ona dela uste dutenek (% 14, ehuneko -2 puntu).

Iritzi horri dagokion indizeak negatiboa izaten jarraitzen du eta pixka bat okertu da urteko laugarren hiruhilekoan (-9). Hala ere, 2016ko batez besteko balioa (-8) ez da 2015ekoa (-15) bezain txarra.



¹ Azken hamabi hilabeteetako


11. eta “erosketa handiak” egiteko asmoa ere bai

¿Nolakoak uste duzu izango direla etxeko gastu edo erosketak (altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

2016ko laugarren hiruhilekoan, euskal kontsumitzaileen hirutik bik (% 67) uste dute eutsi egingo diotela erosketa kopuruari, bostetik batek (% 26) uste du iaz baino gutxiago egingo dituela eta % 7k diote erosketa gehiago egingo dituztela.

Azken finean, erosketak egiteko asmoaren indizeak ez du hobekuntza sendorik izan eta urteko azken hiruhileko honetan atzera egin du (-12, ehuneko -6 puntu). Urte osoa aintzat hartuta, indizea balio negatiboen egon da (-10), 2015eko balioetatik (-12) gertu.

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan ¹
(pertsonek %-a)




¹ Azken hamabi hilabeteekiko

12. jaitsi egin da etxebizitza erosteko asmoa eta autoa erosteko asmoak bere horretan jarraitzen du

Etxebizitza erosteko asmoa (*hurrengo hamabi hiletarako*)
(pertsonek / familien %-a)




2016ko laugarren hiruhilekoan, euskal familien % 2 inguruk datorren urtean etxebizitza erosteko nolabaiteko asmoa adierazi dute. Urteko batez bestekoan, 2016an (% 1,8) ez da aldaketarik izan 2015eko datuekin alderatuta.



Autoa erosteko asmoa (*hurrengo hamabi hiletarako*)
(pertsonek / familien %-a)



Bestalde, euskal familien % 5ek datozen hamabi hilabeteetan autoa erosteko aukera aipatu dute. Urteko batez bestekoan, 2016an (% 5,2) hobetu egin da 2015eko datua (% 3,5).



13. profil baxua erosketa handietan eta inbertsioetarako erabakiak

2016ko laugarren hiruhilekoan sendotu egin da joan den zortzi hiruhilekoetako egoera. Hala, euskal familiak egoera hobetzeko baldintzak egonkortzen ari dira, batez ere, enpleguaren eta kontsumoaren suspertzeari lotuta.

Hala ere, eta arreta “erosketa handiei” jarrita, 2016an hobetu egin da erosketa horiek egiteko uneari eginiko balorazioa 2015ekoarekiko (-19tik -8ra), baina ez da ia batere suspertu erosteko benetako asmoa, balio negatiboetan eta 2015eko mailaren oso antzeko jarraitzen baitu (-12tik -10era).

Euskal familiek kontsumo berehalakoa, egunerokoa berreskuratu dute, baina ez da sendotasunez suspertu kontsumo handia, ez behintzat ibilgailuen erosketak izandako suspertze leunetik harago (3.133 eta 3.148 unitate, hilean batez beste 2015ean eta 2016an, hurrenez hurren). 2008 baino lehenagoko datuen azpitik gaude hala ere, orduan 4.000/5.000 ibilgailutik gorakoa baitzen datua.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	<u>2015</u>	<u>2016</u>	<u>I H-16</u>	<u>II H-16</u>	<u>III H-16</u>	<u>IV H-16</u>	<u>Aldea</u>	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	6	14	13	21	15	6	-9	
Erosteke unearen balorazioa	-19	-8	-11	-7	-6	-9	-3	
Erosketak egiteko igurikimenak	-12	-10	-9	-14	-6	-12	-6	

⇔ (±2 puntuko aldea)

d) eranskina - indizeak

- I. Laburpena: familien konfiantzaren indizea 20**
 - II. Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera 21**
 - III. Beste adierazle batzuk 22**
-

Laburpena: familien konfiantzaren indizea

Laburpena: konfiantzaren indizea	2015	2016	I H-16	II H-16	III H-16	IV H-16	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-6	-5	-7	-3	-5	-3	↗
• Estatua*	0	-4	-2	-3	-6	-4	↗
• EB*	-4	-6	-6	-6	-7	-6	↗
o Frantzia*	-17	-14	-15	-14	-14	-13	↗
o Alemania*	0	-4	-6	-3	-3	-2	↗
o Erresuma Batua*	3	-3	2	-1	-6	-5	↗
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	-4	-7	-8	-7	-7	-5	↗
• Etxeko ekonomia	-7	-5	-9	-5	-4	-3	↗
• Langabezia	3	4	1	9	-2	9	↕
• Aurrezkia	-16	-12	-14	-11	-10	-12	↗
Kontsumoari buruzko igurikemenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	6	14	13	21	15	6	↘
• Erosteke unearren balioztapena	-19	-8	-11	-7	-6	-9	↘
• Erosketak egiteko igurikimena	-12	-10	-9	-14	-6	-12	↘
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	1,8	1,8	1,2	2,7	1,4	2,0	↗
• Autoa	3,5	5,2	3,7	6,6	5,1	5,4	↗

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* III hiruhileko datuak uztaila eta abuztuko batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko)

Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera

Konfiantza, kontsumitzaileen ezaugarrien arabera

2015 2016 IH-16 II H-16 III H-16 IV H-16

Kontsumitzaileen konfiantza-indizea

• EAE

-6 -5 -7 -3 -5 -3



Adin-mailak

- 25 eta 39 urte bitartean
- 40 eta 54 urte bitartean
- 55 eta 64 urte bitartean
- 65 eta 74 urte bitartean

-4 -4 -3 2 -4 -6
-4 -1 -5 1 -2 -6
-9 -6 -8 -7 -5 -3
-8 -12 -17 -12 -14 -6



Lan-egoera

- Landuna (soldatapekoa / norberaren konturakoa)
- Langabea
- Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea, ..)

-1 1 1 3 -2 2
-19 -18 -27 -19 -16 -11
-8 -9 -12 -8 -8 -6



Familia-unitatearen hileko errenta

- 1.700 €-rainokoa
- 1.701 eta 2.800 € bitartekoa
- 2.800 €-tik gorakoa

-21 -21 -23 -23 -22 -15
-3 -4 -3 -6 -5 -2
9 7 10 2 8 8



Beste adierazle batzuk

Beste adierazle batzuk	IV H - 15	I H - 16	II H - 16	III H - 16	IV H - 16 _(P)	(azkena)
BPG	3,1	3,3	3,2	3,0	--	III hir.
Familien kontsumoa	2,9	3,3	3,4	3,1	--	III hir.
Afiliazioa	1,5	-0,4	1,1	-0,5	1,7	azaroa
Erregistratutako langabezia	-1,8	1,5	-3,9	-3,7	-2,4	azaroa
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	0,2	1,1	1,4	0,1	--	III hir.
Azalera handien salmenta-indizea	0,1	-0,3	-0,7	-1,9	--	III hir.
Etxebizitzen salerosketa	-10,4	35,8	4,2	-15,8	--	III hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	14,6	-8,0	14,6	-14,4	5,9	azaroa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Azalera handien salmenta-indizea. Eustat. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa.
6. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
7. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoa) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko. Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

e) eranskina - metodologia

- I. Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da? 24**
 - II. Zer esan nahi du indizearen bilakaerak? 25**
-

Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?


Hainbat eragilek datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) ekonomia orokorraren egoera
- 2) etxeko ekonomiaren egoera
- 3) langabeziaren bilakaera
- 4) etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.

¹ *Consumer Confidence Indicator*; dokumentu honetan, familien konfiantza-indizea erabili dugu, kontsumitzaileen iritziaren berri emateko.

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea



Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobetorainoko bitartean) sailkatzen da.

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- *ekonomia orokorrarena*
- *etxeko ekonomiarena*
- *aurrezteko gaitasunarena*
- *langabeziaren bilakaerarena*

Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.
- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek

Baikortasuna
Ezkortasuna

fitxa teknikoa

- *Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.*
- *Azaroaren 7tik 19ra (2016ko IV. hiruhilekoa)*
- *Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.*
- *% 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea*

metodologia

- *Kontsumitzailearen konfiantza-indizea*
- *Europako Batzordea* http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm